

**BERGARAKO 2030 AGENDAREN PLAN ESTRATEGIKO JASANGARRIA ADOSTEKO PROZESUA
EKONOMIA-GIZARTE MAHAIAREN 2. BILERA**

Bertaratutakoak:

- Gorka Artola (Alkatea)
- Ainhoa Lete (Sustapen ekonomikoa, berrikuntza, ekintzailetasuna eta turismoa arloetako udal-hautetsia)
- Koldo Azkoitia (Debagoieneko mankomunitatea)
- Marije Unamuno (garapen teknikaria)
- Rosa Errazkin (Laboratoriumeko arduraduna)
- Xabier Legorburu (gizarte zerbitzuetako burua)
- Leire Garmendia (Izadi 21 aholkularitza-taldea)
- Edurne Simón (Izadi 21 aholkularitza-taldea)

Bileraren hasiera-ordua: 10:00.

Udalak kontratatutako aholkularitza-enpresako kideek, akta honekin batera doan aurkezpenaz baliatuz, eta "Bergara 2030 egin herrixa" prozesuaren baitan mahai teknikoaren lehen bileran ekonomia eta gizarte arloei dagokionean 2030 urtera begira identifikatu ziren erronka nagusien hausnarketatik abiatuz, Plan Estrategiko Jasangarriaren formulazio estrategikoa aurkeztu dute.

Lehenik eta behin, apirilean izandako lehen herri-batzarrean herritarrekin eginiko lanketatik aholkularitza-enpresako kideek idatzi duten 2030erako ikuspegia azaldu da. Herritarrei 2030 urtean Bergarak izango dituen ezaugarri nagusiak zehazteko eskatu zitzaizkien eta gehien nabarmendu zituzten hitzekin osatu da **2030erako ikuspegia** (hau da, Bergararen etorkizuneko irudi desiragarria).

Ikuspegia:

"Bergara inklusiboa izango da 2030ean, adin, jatorri eta egoera ezberdinean aurkitzen diren herritarrei enpatiaz erantzun egina. Natura zaintzen duen komunitatea izango gara, osasuntsua, irisgarritasuna eta jasangarritasuna bilatuz bizitzeko herri goxoa bihurtu duena. Gizarte euskalduna izango da gurea, kultura-, kirola- eta hezkuntza- eskaintza zabala dituen. Ikuspegi partehartzaile eta feministatik erronka berriei aurre egiten dien auzo-herria izango gara."

Ikuspegiari hutsune bat topatu diote udal ordezkariak, bertan garapen ekonomikoa eta enpleguari ez baitaio erreferentziarik egiten. Honenbestez, ikuspegiaren bertsio berria idaztea adostu da, 2030eko Bergararen ekonomia eta enpleguaren oinarriak barneratzeko.

Ondoren, Plan Estrategiko Jasangarriaren Formulazio Estrategikoa definitzen hasteko asmoz, mahai teknikoaren lehen bileran eginiko lanketatik jasotako ekonomia eta gizarte-ongizateari lotutako **helburu estrategiko eta helburu operatiboen (jarduera-programen) proposamena aurkeztu da.**

Ondoren, ekonomia-gizarte mahaiaren 2. saioko helburu nagusiak zeintzuk diren azaldu dute aholkularitza-taldeko kideek:

- 1) Aurkeztutako helburu estrategiko eta operatiboen gainean ekarpenak jasotzea

- 2) Helburuetatik ekintzetara jaistea, helburu bakoitza aurrera eramateko ekintzen hasierako zerrenda osatzea. Ondorengoak ekintza moduan jasotzea proposatu da: Indarrean dauden udaleko gaikako ekintza-planak (Merkataritza Biziberritzeko Plan Berezia –PERCO-, Turismo-plana, etab.), Legegintzaldiko plana eta diagnostikoaren lehentasunezko jarduerar-erloak.
- 3) Hurrengo bileren inguruko aurreikuspenak azaltzea

Lehen bi helburuak erdiesteko asmoz, azaldu diren bi helburu estrategikoen gainean ekarpenak egiteko dinamika zehatz bat erabili da eta honakoak dira lortutako emaitzak:

EKONOMIA ARLOAN:

HELBURU ESTRATEGIKOA: Trantsizio sozioekologikoan oinarritutako garapen ekonomikoa bultzatzea, inklusiboa, berritzailea eta jasangarria, eta kalitatezko enplegu osoaren alde egitea

HELBURU OPERATIBOAK (JARDUERA PROGRAMA): Helburu bakoitzerako jaso diren ekintza posibleak hauek dira (ekintzak urdinez markatutakoak dira):

- Lehen sektorea suspertzea, jarduera ekonomikoa kalitatearekin zein naturaren zaintzarekin uztartuz eta oreka lortuz.
 - Ekoizpenerako lurra eskuratzeko eta horien kudeaketa errazteko asmoz, laguntzak eskaintzea nekazari eta abeltzainei: zesioak, sal-erosketak, aholkularitza zerbitzua.
 - Ekoizle berriak lagundu: lurren erreserbak sortu eta eskaini, kontsumo beharrak identifikatu, sare kooperatiboak sortu, etab.
 - Basogintzari alternatiba jasangarri eta bideragarriak bilatzea
 - Lur publikoen kopurua gehitzea erabilera ezberdinetara bideratzeko
 - Bioaniztasunaren ikuspuntu ekonomikoa landu (ekosistemen zerbitzua, etab.).
 - Oxirondo Azokaren berrantolatzea eta ikuspegi-aldaketa. Azokarako ekintza-plana egikaritzea.
- Ekonomia zirkularraren oinarritutako bertako eredia sortzea eta abiaraztea (industria sektorean, hezkuntzaren arloan, bertako ekoizpenean eta ekoiztutako produktuen merkaturatzean).
 - Ekonomia zirkularraren inguruan, programa eta jardunaldiak prestatu, eredia eta zereginak zehaztu eta bideratzeko.
- Bergaran sortutako enpresen eta bertan garatutako proiektuen aldeko apustua egitea, lankidetzaren publiko-pribatua sustatuz
 - Kalitatezko formazio/ikastaroak bultzatu eta sentsibilizazio kanpainak aurrera eramanez berritzaileen inguruan. Esaterako, Bergarako historia zientifikoa gogorarazi, eraginkortasunez eta harrotasunez aurrera egiteko.
 - Jarduera eta ekimen sozio-ekonomiko berriak/pilotuak sustatu eta partekatu, Bergararen duen tradizio zientifikoa zein berritzailean oinarrituz.
 - Ekintzaile ezberdinen arteko elkarlana bultzatu eta baliabideak partekatu
 - Logistika-sare kooperatiboak bultzatu.
- Industria-sektorean diharduten enpresak indartzeko eta elkarren arteko sarea sendotzeko baliabideak eskaintzea
 - Enpresen arteko lankidetzarako tresnak/foroak indartu
 - Enpresen barne ekintzaitza bultzatu enpresen dibertsifikazio proiektuak sustatuz eta lagunduz
 - Bergarako enpresak herritik ez joateko eta enpresek era berean Bergara kokaleku interesgarria izateko neurriak hartu.
 - Enpresek behar duten talentua erakarri eta Bergarako talentua bertan errotu dadin programak sustatu.

- Enpresan jarduerak atzerriratzeko baliabideak bultzatu.
- Enpresak bertan errotu eta indartu daitezzen neurriak ahalbideratu.
- ENPRESARE eta FEDEX bezalako ekimenen zereginak babestu eta indartu, sinergia ezberdinen baturan lan egiteko.
- **Zerbitzuen sektorea babestea, bisitariak erakartzea, egoiliarrek mantentzea, establezimenduen irudia hobetuz eta Bergarari giroa emanez:**
 - Turismo plana abian jartzea
 - Zerbitzu sektoreko lokalen legezkatzean pausuak ematea
 - Merkataritza eta ostalaritzan prestakuntza bultzatu (digitaliazioa,...) zerbitzu profesional eta euskaldun bat lortzeko. Dirulaguntzak eskaini eta erreleboa ahalbideratu.
 - Herritarren kontsumoa fidelizatzeko kanpainak egitea
 - Merkataritza Biziberritzeko Plan Berezia (PERCOa) egikaritu
 - Zerbitzu sektorera (gizarte zerbitzuen ikuspegitik) profesionalak gerturatzeko eta kalitate oneko zerbitzuak eskaintzeko baldintza duinak sortu: prestaketa, soldatak, ordutegiak, etab.

Ekonomia arloari loturiko helburu estrategikoari dagokionean, helburu operatibo berri bat gehitzea proposatu da, ekonomia sektorearen deskarbonizazioaren gaiari loturik. Deskarbonizazioaren gaia agian beste helburu estrategiko bati loturik maila orokorrago batean barneratuko dela aipatu du aholkularitza-enpresak eta aurrerago erabakiko da helburu gisa non kokatu.

- **Ekonomia sektorea deskarbonizatzea.**
 - Herriko karbono isurketen inguruko neurketak egin abiapuntua zehaztuz.
 - Deskarbonizazioa sustatzeko programak aurrera eraman
 - Energia berriztagarrien aldeko apustua egin
 - Etxebizitzetan eta eraikinetan berriztatze energetikoki eraginkorrak gauzatzeko ekimenak bultzatu
 - Klima-aldaketaren aurrean sortu daitezkeen aukera ekonomiko berriak identifikatu eta lantzeko aukerak sustatu.
 - Energia eraginkortasuna bideratzeko ekimenak sustatu.

GIZARTE ARLOAN:

HELBURU ESTRATEGIKOA: **Herritarren ongizatea bermatuko duen eta herritarren arteko lankidetzaren zein zaintzaren baloreak sustatzen dituen gizarte eraikitzea**

HELBURU OPERATIBOAK (JARDUERA PROGRAMA): Helburu bakoitzerako jaso diren ekintza posibleak hauek dira:

- **Herritarrei eskainitako gizarte zerbitzuei eta prestazioei buruzko kalitatea hobetzea, horien eraginkortasunean sakonduz.**
 - Gizarte zerbitzuen arloan eskaini beharreko zerbitzuak hobetzeko bertara bideratutako baliabide pertsonal zein profesionalen hausnarketa egin eta baliabideak bideratu. Horretarako, herritarren premien azterketa (diagnosia) eta asebetetzea neurtu eskaintzen zaien zerbitzuei buruz. Honela, gaur egun eskaintzen diren zerbitzu/prestazio eta laguntzen eta eskatzen direnen arteko “zuloa” identifikatu eta baloratu ahal izateko eta behar izanez gero osatzeko.

- 185/2015 Dekretua (gizarte zerbitzuei dagokiona) garatu.
- Zaintza lanak balioan jarri eta langileen baldintzetan eragin. Horretarako antolaketa eredu ezberdinak aztertu.
- Zaintza lan "ez reglatuetan" dabiltzan emakumeengana iritsi, ahalduntzea landu eta formazioa eskainiz.

▪ **Menpekotasunak prebenitzeko eta horiei aurre-egiteko baliabideak sendotzea.**

Menpekotasun ezberdinak bereiztu beharko lirateke: droga eta jokuaerakiko menpekotasuna batetik eta 3. adineko eta ezinduei dagokien menpekotasun egoerak bestetik. Bi helburu ezberdinetan banatu beharko lirateke eta bestela beste era batera formulatu beharko litzateke, esaterako: "Herritarren osasuna hobetzeko eta menpekotasuna prebenitzeko baliabideak sendotzea"

- Menpekotasunaren aurrean eredu ezberdinak aztertu: etxebizitza komunitarioak, belaunaldi arteko programak, etab. Pertsonak etxean artatzea lehenetsi eta horretarako baliabideak sortu eta garatu. Pertsonen autonomia maila mantentzeko ekintza-zabal eta anitzak garatu: osasun mahaia, Bergara oinez, intentsitate baxuko zerbitzuak, menpekotasuna atzeratzeko programak, etab.
- Zaintzaileei prestakuntza eta ezagutza eskaini.
- Menpekotasun maila arinei laguntzeko baliabide teknologikoak garatu.
- Menpekotasunen prebentzio plana garatu.
- Menpekotasun egoeratik irten eta gizarteratze prozesuak bultzatu administrazio ezberdinekin elkarlanean

▪ **Herritarren aniztasunari balioa ematea eta kulturartekotasuna ahalbidetzeko lankidetzak sarea osatzea.**

Jarduera programa honen izenburua aldatu beharko litzatekeela aipatu da, balioan jartzeaz gainera, aniztasun ezberdinak aintzat hartu, zaindu eta ahalduntzea baita helburua. Honako izenburua proposatzen da: "Herritarren aniztasun ezberdinak aintzat hartu, babestu eta ahalduntzeko lankidetzak sarea osatzea".

- Herritarren aniztasuna ezberdinak (sozialak, fisikoak, sexualak, etab.) eta kulturartekotasuna lantzeko politikak aurrera eramatea.
- Adin, jatorri,....ezberdineko herritarrentzako partekatze espazio (fisiko eta denborazkoak) sortzea.
- Kultura aniztasunaren gaineko azterketa egin eta bultzatzeko plan bat garatu.
- Elkartegintza hezkuntza arlotik bideratu. Elkarleen premiak aztertu eta hauen baitan laguntza eskaini.
- Herritarren lankidetzak sarea sortu eta komunitatea sortzeko bidea egin, sentitze komunitarioak landuz: udala zerbitzu emaile eta herritarra hartzaile logika apurtuz)
- Ezberdin/berdinen taldeak autoidentifikatzeko formazioa eskaini, identitate konpartituak bilatu eta indartzeko bideak erakusteko.
- Fiskalitate progresiboagoa egin, herritarren gaitasun/ahalmen ekonomikoen araberako "esfortzu" progresibo bat ezarri.

- Aniztasun fisikoak aintzat hartzen dituen hiri irisgarriago bat prestatzeko politikak garatu. Aransgi bezalako elkarteekin programa ezberdinak garatu (adibidez: Museoko edukien egokitzapena, etab.)

▪ **Herritarren arteko berdintasuna lortzeko politika publiko eraginkorrak abiaraztea.**

Programa honen izenburua ere aldatu beharra egongo litzateke genero berdintasunari buruzko politikak barne hartzeko helburu zehatz bat eskatzen baitu. Honako izenburua proposatzen da: "Genero berdintasuna lortu eta emakumea ahalduntzeko politika publiko eraginkorrak abiaraztea"

- Berdintasun-plana berrikusi eta bertan jasotakoak gauzatzeko baliabideak bideratu.
- Berdintasun saila sortu eta beharrezko baliabideak bideratu ekimen zehatzak lantzeko.
- Emakumeentzat erreferente izango den gunea sortu: besteak beste, aniztasuna, zaintza duina landuko duena (formazioa, aholkularitza, etab.)
- Berdintasuna normalizatzeko, beste arloetan barneratu (koordinatu) eta ezagutzera eramateko eskaintzak sortu eta ezarri (etengabe): erakusketak, unitate didaktikoak, etab.

Orokorrean proposatzen diren ekintzek behin betiko planaren egituran izango duten kokapena ezingo da oraindik guztiz zehaztu.

Dinamikarekin amaitu ostean, mahai teknikoaren hurrengo bileraren helburuak eta tartean antolatuko diren mahai sektorialetan landuko dena azaldu dute aholkulariek.

Bestalde, gaurko bilerara etortzeko aukerarik izan ez duten eragileei eta baita gaurko saiora bertaratu direnei ere, ekarpenak egiteko aste beteko epea ematea adostu da.

Honenbestez, bilera 11:40etan amaitu da.